


# EUSKARAZ BIZI

# "FAMILIAN EUSKARAZ"

**Ikasturte honetan zuen seme-alabak EUSKARAZ BIZIKO partehartzaile dira eta jator erantzun dute eskatu zaien ahaleginari.**

Oraingoan, etxean jarraipena izatea gustatuko litzaiguke eta horretarako, eskutitz honekin batera doakizue prestatu dugun kanpaina.

Bide batez, gure kanpainarekin lortu nahi duguna gogora ekarri nahi dizuegu.

1.Euskal Herrian bizi garenez, gure seme-alabak euskaldunak izatea lortu nahi dugu, horregatik euskaraz mintzatzen lagunduko diegu.
2.Ezkerraldean euskaraz egitea ez da erraza izaten. Badakigu beti ezin dela, baina ahal dutenean egin dezaten bultzatu nahi ditugu.
3.Zenbat eta gehiago praktikatu, hobeto menperatuko dute hizkuntza, eta era berean, emaitza hobeak lortuko dituzte ikas arlo ezberdinetan.
4.Zuen seme-alaben bizitza ez da ikastolako eremura mugatzen. Beste hainbat esparru daude, hala nola: sendia, lagun taldeak, kirolak, musika, zinema...

**EUSKARAZ BIZIrekin jarraituz, Maiatzaren 1ean hasita kanpaina berri bat martxan jarriko dugu "FAMILIAN EUSKARAZ", kanpainaren berri eta betetzeko arauak eman nahi dizkizuegu:**

105 adreilu dituen etxaurrea daukagu. 15 egunetan betetzeko. Egun bakoitzean 10 adreilu margotu behar dira, hauek margotu ahal izateko baldintza hauek beteko ditugu:

- Euskal telebistako programa bat ikusi, irratia euskaraz entzun, pelikula bat euskaraz ikusi, antzerki bat euskaraz, edo besteren bat.
- Neba-arreba edo lehengusuren batekin euskaraz egin.
- Ikastolako norbaiti telefonoz deitu eta euskaraz mintzatu.
-Euskaraz idatzita dagoen zerbait irakurri, liburua, komikia, nire ipuintxoak...
-Kalean jolasean, lagunekin, euskaraz hitz egin.

Ekintza bakoitzak bi puntu izango ditu, egunean zehar egindako ekintza guztien puntuak batuko ditugu eta batuketa horren besteko adreilu margotuko ditugu. Hala ere, gurasoek haurrek egindako puntu orrian sinatuko duzue beraien lana goraipatuz eta motibatuz.

Kanpaina honen iraupena hamabost egunekoa izango da, Maiatzaren 1etik 15era, hurrengo egunean ikasleek ikastolara ekarriko dute euren lana eta tutoreari emango diote.

**Durante este curso vuestros hijos/as han participado activamente en las campañas de EUSKARAZ BIZI y su respuesta ha sido muy positiva.**

Pensamos que nuestro proyecto debe tener continuidad en el entorno familiar, y par ello hemos diseñado la campaña adjunta a esta carta. Aprovechamos la ocasión para recordaros nuestros objetivos:

1.Vivimos en Euskal Herria y queremos que vuestros hijos/as sean euskaldunes, por esta razón les ayudamos a que hablen en euskara.
2.Sabes que por el hecho de vivir en una zona castellano-parlante, no es fácil comunicarse en euskara, pero queremos animarles a que lo utilicen siempre que puedan.
3.Para dominar un idioma es imprescindible practicarlo, cuanto mayor dominio del idioma tengan nuestros alumnos/as mejores resultados académicos obtendrán.
4.Si queremos que nuestros hijos/as vivan en euskara, no podemos limitarles al entorno de la ikastola. Consideramos importante ampliar esta posibilidad a otros campos, tales como: la familia, los amigos, la música, deportes, cine...

**Continuando con EUSKARAZ BIZI, a partir del 1 de Mayo comenzaremos una campaña nueva, "FAMILIAN EUSKARAZ". Queremos comunicaros el desarrollo de esta campaña:**

Tenemos la fachada de una casa con 105 ladrillos, para colorear durante 15 días. Cada día 10 ladrillos. Para poder colorear dichos ladrillos tendrán que llevar a cabo unas actividades, tales como:

- Ver un programa de la TV en euskara, oír la radio en euskara, ver una película en euskara, un teatro o alguna otra actividad similar.
- Hablar en euskara con los hermanos/as o algún primo/a.
- Llamar a algún compañero/a de la ikastola y comunicarse en euskara.
- Leer algún texto en euskara: libro, cómic, cuento...
- Jugando en la calle con mis amigos/as, hablar en euskara.

Al realizar estas actividades obtendremos dos puntos por cada una de ellas, hasta conseguir un total de diez puntos, tantos como ladrillos a colorear. Así mismo, los padres, al finalizar el día, firmareis en recuadro correspondiente. Esta es una forma de motivar y valorar el trabajo de vuestros hijos/as.

La duración de esta campaña es de 15 días, comenzando el 1 de Mayo y finalizando el día 15 de dicho mes. Al día siguiente, los alumnos entregarán las hojas que han rellenado a sus tutores/as.

